

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Publizitatearen bitartez erakarriko ditugu bezeroak, eta mantenduko ditugu gure aplikazioa gustatuko zaielako. Publizitatea sare-sozialetan agertuko da (Instagram, Facebook, Twitter, Getxoko Udaletxearen web-orrian...).

Gure zerbitzua autozerbitzukoa izango da, izan ere, bakoitzak erabiliko du nahi duenean eta nahi duen bezala. Hala ere, bezeroek arazoren bat izatekotan, zalantzak argitzeko edo arazoak konpontzeko aukera izango dute, laguntza pertsonala eskaintzen baitugu.

Bezero edo kontsumitzaile berriak lortzeko publizitatea erabiliko dugu, aurreko atalean azaldu dugun bezala. Hasieran aplikazioa Getxon bakarrik erabili harren herrialde osora zabaltzeko asmoa dugu, horrela bezero gehiago lortzeko. Dagoeneko badauden bezeroak mantentzeko, zenbaitetan deskontuak izango dituzte TAO (Gertek) ordaintzerako orduan.

Bezeroekiko komunikazioa:

- **Publizitatea:** Publizitatea erabiliko dugu gure produktua zabaltzeko, Interneten eta beste leku batzuetan jarriko ditugu gure aplikazioaren iragarkiak.
- **Harreman publikoak:** Gure harremanak nolabaiteko kostuak daukatenak izango dira. Festibaletan edo aparkatzeko zailtasunak egoten diren ekitaldietan publizitatea jartzeko asmoa dugu, hala nola kartelak.
- **Salmenten sustapena:** Publizitatea erabiliko dugu bezero gehiago lortzeko.
- **Merchandising:** Kartelak jarriko ditugu, adibidez, parkinetan eta autobus eta metro geltokietan. Esan bezala, ekitaldietan kartelak eta beste motatako publizitatea jartzeko asmoa dugu.
- **Aurkezpenak:** aplikazioaren informazioa emango dugu aurkezpenen bitartez. Lehen esan dugun bezala, Getxoko Udaletxearekin aurkezpen bat egitea gustatuko litzaiguke, adibidez, auzo desberdinetan, liburutegietan...

